

Elizen arteko biblia eta itzulpengintza

Ramon Irizar
Exegeta-itzultzailea

Bibliaren itzulpen oro baldintzatuko duten ezaugarri batzuk aurkeztuz hasten da artikulu hau: jatorrizko hiru hizkuntzak, testuen iturri eta testuinguru desberdinak, izaera literarioa, liburuen aniztasuna eta hizkeraren koherentzia, alderdi komunikatiboa, bizi-dinamikari loturiko literatura izatea, itzulpen tradizio zahar eta ugaria... *Elizen Arteko Biblia* izenarekin ezagutzen den euskal itzulpenaren berezitasunak aztertzen dira ondoren: jatorrizko testuak erabiltzea, talde-lana izatea, protestanteen eta katolikoen partehartzea, itzulpen ulerterraza egiten saiatzea... Azkenik taldeak bereganatu dituen itzulpen irizpideak eta aurkitu dituen arazo konketuak aipatzen dira.

The article starts introducing some characteristics which determine every traslation of the Bible: the three original languages, the different sources and contexts, its literary character, the abundance of books and the coherence of the language's style, the communicative side, the fact of being a kind of literature linked with life-dynamic, the old and numerous existing traditions on the matter... Then, the paper analyses the specific characteristics of this basque translation known under the title of *Elizen arteko Biblia*: the use of the original languages, its condition of being a result of a group-work, the participation of both Protestants and Catholics, the purpose of resulting easily understandable... The article concludes mentioning the last translation criteria gotten by the team and problems they have had within the business.

Artikulu honetan¹ ez dut itzulpen-proiektuaren historia egingo; ez dut azalduko nola sortu zen asmoa eta proiektua edo nola garatu den itzulpena bera². Elizen arteko Biblia (E.A.B.) honetako Itun Berria 1983an argitaratu zen. 87an ekin genion Itun Zaharra itzultzeari. Duela urtebete pasa, Biblia osoa argitaratu ahal izan zen; horretarako berrikuste sakona egin zitzaion Itun Berriari ere, Itun Zaharra itzultzen emaniko urteetan taldeak hobeto landu eta barneratuak zituen irizpide eta jardunbideei aspalditxotik egina zegoen Itun Berria hobeto moldatu eta egokitzeke.

1. Zenbait oinarritzko datu Bibliari buruz

Hasteko, Bibliari berari buruzko zenbait jakingarri emango dut, itzulpenerako adierazgarria dena, Biblia liburu guztiz berezia delako, hain zuzen.

1.1. Biblia ez daiteke testu bakartzat har. Ez da liburu bat, liburu askoren bilduma baizik (izenak berak hala adierazten du, *Biblia* grekoz izen plurala baita, *Liburuak* alegia). Itzulpen honetan, 76 idazti ezberdin dira. Idaztien kopurua ez da bat bera izaten itzulpen guztietan. Ezberdintasuna Itun Zaharreko (I.Z.) liburuei dagokie, Itun Berriko (I.B.) liburuen kopurua eta ordena finkoa baita. Hamar-hamaika mendetan zehar eratuz joan diren liburuak dira (zenbait liburu izena ematea ere gehiegizkoa da, orrialde bat edo bitan sartzen baitira). Mota guztietako liburuz osaturik dago bilduma. Aniztasun izugarria dugu, beraz, Bibliako

liburuen fisonomiari dagokionean.

1.2. Bibliako testuak, I.Z.ekoak batik bat, testu literariotzat jo behar dira. Horietako asko poetikoak dira (eta hebraieran, poesiak gramatika berezia du –sintaxiari dagokionean, adibidez–, testu narratiboena ez bezelakoa).

Oro har, Bibliakoa herri-literatura da. Egileak neurri handian anonimoak dira. Testu asko eta asko, idatziz emanak izan aurretik, ahoz aho transmitituak izan ziren. Bibliakoa, gainera, literatura guztiz funtzionala da, helburu komunikatiboa duena. Biblia herri eta komunitate baten historia biziaren lekuko da eta bizitza beraren mugimenduan murgildua dago. Etengabe berrirakurria izan da, berrirakurketa horien aztarnak testuan bertan aurki daitezkeelarik, eratze-prozesu luze baten emaitza denez. Eta ondorioz, gai, literatur formula eta egitura berak errepikatzen dira liburu batetik bestera, birmoldatuak eta egokituak. Literatur tradizio trinko baten barruan kokatzen dira liburuok. Azaleko formari dagokionean bilduma izan arren, bere osotasunean Biblia koherentzia handiko literatura da, barne-erlazio eta lotura handia duena. Ez daiteke liburu bat bere aldetik itzul, gainerakoak kontuan hartu gabe.

Beraz, aniztasuna dugu batetik (garai eta literatur mota ezberdinetako liburuak, hizkuntza eta kultur ingurugiro ezberdinetakoak), eta bestetik barne-harreman estuak dituen literatura, barne-koherentzia handikoa. Eta hor nabari dezakegu Bibliaren itzulpenaren desafio handietako bat: bi alderdi horiek nola zaindu.

1. UEU-ren Iruñeko Udako Ikastaroetan, 1995.eko uztailaren 21ean «Hebraierazko eta grekozko testuak *Elizen Arteko Biblia*-ren oinarrian» izenburuarekin Ikasketa Klasiko Sailean eskainitako hitzaldia da funtsean artikulu honetan biltzen dena.


2. Horretarako ikus Amundarain 1988 eta Intxausti 1994.

1.3. Iturriei edo jatorrizko testuei buruz ere berezia dugu Biblia.

Itzulpenak hizkuntza batean idatzita-ko testua beste hizkuntza batean ematen du. Bada, Bibliako jatorrizko testuak hiru hizkuntzatan aurkitzen ditugu: hebraieraz, aramaieraz eta grekoz. Lehen bi hizkuntzak arras arrotzak guretzat.

Baina ez da hizkuntz kontua bakarrik. Bibliako jatorrizko testuak hiru iturri desberdinetatik jasotzen ditugu: a) hebraierazko Biblia; b) tradizio katolikoan “deuterokanoniko” eta protestantean “apokriko” deituriko liburuak (juduek beren kanonean onartu gabeak eta LXX, Septuaginta edo Hirurogeita Hamarrak, deituriko antzinako grekozko itzulpenean iritsi zaizkigunak), eta c) Itun Berria. Hiru iturri horiek lur berean dituzte sustraiak (sustrai hori semitikoa da, nahiz eta iturri horietako bi grekoz idatziak aurkitzen ditugun), baina testuinguru historiko eta kultural aski ezberdinetan jaioko dira. Honetan ere Biblia guztiz berezia dela esango nuke, ez baitut uste beste inongo liburutan horrelakorik gertatzen denik.

Iturriei dagokienean, honela eske-
matiza daiteke egoera:



Hebraiera I.Z.era mugatzen da (hebraierazko testuaren barruan aramaierazko zati gutxi batzuk direla). Grekozko jatorrizko testuak, berriz, I.Z.ean (10 liburu) eta I.B.an (osorik) banatzen dira. Bi hizkuntza guztiz ezberdinak dira, nahiz eta mundu kulturala bat bera izan funtsean.

1.4. Antzina-antzinatik egin dira Bibliaren itzulpenak. Zalantzarik gabe, itzulpengintzaren historian Bibliari dagokio lehen postua. Kristoren garaia baino lehen, Itun Zaharra grekora itzuli zen Egiptoko Alexandrian, K.a. III-II. mendeetan (LXX edo *Hirurogeita hamarrak* deituriko itzulpena, guretzat I.Z.eko 10 libururen iturri dena). I.B.an, I.Z.aren erabilera grekozko antzinako itzulpen hau bitarteko dela gauzatzen da gehienbat. Aginpide handia izan zuen horregatik itzulpen honek antzinako elizan, geroxeago, eliza latinizatu zenean, ia gaur egunerarte Vulgatak izango zuen bezala.

Grekozko antzinako itzulpena diasporako –Palestinaz kanpo sakabanaturiko– juduen premiak eraginda burutu zen: hizkuntza grekoa erabiltzen zuten, kultur giro heleniarrean bizi ziren, eta hebraiera ulertzeko arazoak zituzten. Garai berean, Palestinan *Targumak*, aramaierazko itzulpenak –hitzak, hain zuzen, ‘itzulpen/interpretazio’ esan nahi du– dauzkagu, ohitura honetatik sortuta: sinagogetan irakurgai hebraieraz egiten zen, baina aramaierara, jendeak erabiltzen zuten hizkuntzara, itzultzen zen berehala, haren azalpena parafraasi bidez eginez.

Ondoren, etengabea izan da Bibliaren itzulpengintza. Eta itzulpen guztiak uste honetatik sortu ohi dira: Biblia Jainkoaren hitzaren lekukotasun idatzia da eta hitz horrek balio iraunkorra du garai guztietako gizon-emakumeentzat. Jakina, behin jatorrizko hizkuntzen ezagutza galduz gero, hitz horren unibertsaltasuna itzulpenaren bidez bakarrik lor daiteke.

1.5. Itun Berria grekoz idatzia iritsi zaigu (ez dugu froga erabakigarririk idazti bataren edo bestearen oinarrian aramaierazko jatorrizkorik dagoela

esateko). Hizkuntza grekoa da, garai-ko grekoa, “koine” edo “arrunt” deitu ohi dena, greko klasikotik aski berezia; baina I.B.ko kultura, unibertso mentala eta egitura linguistikoak ere bai neurri handi batean, semitikoak dira, eta honek berezia egiten du I.B.ko hizkuntza.

I.B. irakurtzen duenak hebraierazko eta aramaierazko hainbat hitz eta esaldirekin egiten du topo: batzuk oso ezagunak, gainerako hizkuntza guztietara pasatu direlako: *Amen*, *alelluia* edo *hosanna*; aramaierazko *Abba* (‘Aita’) edo *Effata* (‘ireki’) (Mk 7, 34), *Talitha kum* (‘Neskata, jaiki’) (Mk 5, 41) edo Jesusen gurutzeko oihua (Mk 15, 34). Kasu hauetan eta beste hainbatetan, testuan bertan ematen da itzulpena: adibidez, Eg 9, 36an: «Bazen Jopen emakume fededun bat, Tabita izenekoa (grekoz “Dorkas” –hau da, “Basahuntza”»), edo Golgota toki-izenaren kasuan (Jn 19, 17). Pasarte berean Jesusen gurutzeko kartela hiru hizkuntzatan, hebraieraz, latinez eta grekoz, idatzita zegoela esaten zaigu (Jn 19, 19-20).

1.6. Bada beste puntu bat, garrantzizkoa, arestian esanarekin estu lotua: aipatu dugun Bibliaren etengabeko itzulpengintzari esker, Bibliak historian zehar izan duen presentzia eta eragina, alegia. Betidanik itzulia, erabilia, Jainkoaren hitz bezala onartua, komentatua, aztertua... Bibliaren inguruan sortutako literatura mugarik gabea da. Bai ikasketa mailan eta bai bizi mailan (antzinatzen, kodizeak bakanak eta eskuragaitzak zirenean, jendeak buruz ikasten zuen Bibliako hainbat atal eta liburu). Biblia tradizio bizi baten barruan irakurria, ospatua, eguneratua izan da mendez mende. Biblia

ez da irakurri eta onartu izan arkeologikoa deitu dezakegun interes batengatik (Babilonia edo Egiptoko antzinako testuak har daitezkeen bezala); interesa bizitzari loturikoa izan da, Bibliako hitzak judu-herriaren eta kristau-komunitateen fedea eta bizitza moldatu baititu. Datu honek eskabide bereziak sortzen ditu Biblia itzultzean, itzulpenak suposatzen duen irakurleari dagokionez bereziki, gaur egungo Bibliaren hartzaileari alegia. Sakratutzat onartua den liburu honen egoera berezia dela eta, irakurlea etengabe dago presente Biblia itzulpengintzan eta guztiz eragilea da itzulpen-prozesu guztian zehar (seguruenik bestelako liburuetan gertatzen den baino neurri handiagoan).

Aipatu ditugun ezaugarri horiek –Bibliaren izaera literarioa, liburuen aniztasuna eta hizkeraren koherentzia, alderdi komunikatiboa, bizi-dinamikari loturiko literatura izatea, bai jatorrian, bai trasmisio-historian eta bai gaurko hartzaileari dagokionean ere...– eskakizun bereziak dituzte itzulpengintzari begira: itzulpen-irizpide eta jardunbideak baldintzatzen dituzte.

2. Elizen arteko Bibliaren zenbait berezitasun

Dakizuenek, euskaraz argitaraturiko Biblia osoaren laugarren itzulpena du-gu hau (orain arte J. P. Duvoisin-ek –1859-65 urteetan argitaratua–, R. Olabide-k –1958an– eta J. Kerexeta-k –1976an argitaratua– eginak genituen)³.

Horiekin alderatuz, lau berezitasun, Bibliaren itzulpen honek bere-bereak dituenak, labur aipatuko ditut.

3. Bibliaren euskal itzulpenen historiari buruz ikus Zabaleta 1988.

2.1. Jatorri-hizkuntzei dagokienez, jatorrizko testuetatik egina

Gaur egun ezinbestekoa da jatorrizko testuak iturri edo oinarritzat hartzea: hebraierazkoak (I.Z.eko liburu gehienentzat), aramaierazkoak (I.Z.eko bi libururen, Daniel eta Esdras-en, zenbait atalenzat gehienbat) eta grekoazkoak (I.Z.eko 10 idazti eta I.B. osoarentzat). Baina ez zen hala duela gutxi arte. Azken mendeetan (XVI. mendearen azken aldetik XX. mendearen erdi aldera arte gutxienez) sortutako Bibliaren itzulpen gehienek latinezko Vulgata izan dute oinarri. Trentoko kontzilioak Vulgata jo zuen Eliza katolikoaren testu ofizialtzat, eta egoera hori ez da aldatu azken Kontziliiorarte.

Vatikano II.ak jatorrizko testuetatik eginiko itzulpenak hobesten ditu; eta baita Elizen arteko itzulpenak ere. Bibli Elkarte Batuen (Bibliaren zabaltzea helburu duen erakunde protestantea) eta Kristauen Batasunerako Idazkaritzaren artean Elizen arteko itzulpenetarako 1968an sinaturiko akordioaren lehen puntua ere hau da: jatorrizko testuak hartzea itzulpenaren oinarritzat. E.A.B. honetan zein testu kritiko erabili den, liburuaren hasieran ematen den «Irakurlearentzat argibide teknikoak» izeneko atalean adierazten da (Askoren artean 1994: XXII).

Orain arteko euskal itzulpenetan ez dago horrelako argibiderik, ez zaio irakurleari adierazten zein testu (edizio kritikoak esan nahi dut) hartu den itzulpenetarako iturri eta oinarri gisa. Olabideren *Itun Zar eta Berria*-ren sarre-ran (1958: 14) adierazpen hau dator:

Eberkera oraingo izkuntzatarak itzul-tzen denean, idazteuneko esakera asko itzez-itzez ez baña, oraingo erara ariz eman bear izaten dira: sarritan bein-

tzat. Ala ere, esateko eta mamiari ezer ez zaio kentzen, artez ari ezkerro. Batetik bestera itzez-itzez aldatu ditekenez izkerarik ez dala, ez degu aaztu bear.

P. Altunak *Euskera* aldizkarian (1994: 458) aditzera ematen duenaren arabera, jatorrizko hizkuntzetatik itzuli zuen Olabidek, nahiz eta itzulpenean bertan ez zaigun inolako argibide teknikorik ematen.

E.A.B.-ren itzulpen honen irakurlea nekerik gabe ohartuko da itzulpena jatorrizko testuarekin etengabeko konfrontazioan dagoela eta harekiko errespetu handiz jokatu nahi izan duela itzultzaile-taldeak (testu-arazoak daudenean edo jatorrizkoak itzulpen-aukera ezberdinak eskaintzen dituztenean, adibidez). Biblistak eta itzultzaileak elkarlan estuan aritu dira itzul-tze-prozesu guztian zehar.

2.2. Lan prozedurari dagokionean, talde-lanean egina

Orain arteko itzulpen guztiak pertsona bakarrak —eta ez da hori meritu makala!— eginak ziren. Oraingo hau goitik behera talde-lanean egina da. Eta jakina da talde-lanak bere eskakizun bereziak dituela, bakarkakoak ez dituenak; bere mugak eta abantailak. Lehen aipaturiko Bibliaren berezitasunei begiratzen badiegu ere, badirudi egokiagoa dela talde-lana bakarkakoa baino, Bibliaren aniztasuna eta barne-batasuna itzulpenean isladatu ahal izateko, adibidez.

Lanaren banaketa egiterakoan, ahal zen neurrian behintzat, kontuan izan genuen Biblian antzeko diren testu-multzoak itzultzaile-bikote beraren ardurapean jartzea (liburu bakoitzaz bikote bat arduratu ohi zen, bata exegeta eta itzultzailea bestea; ondoren,

bikote horrek sortutako oinarrizko itzulpena gainerako itzultzaileen eskutik pasatzen zen, eta beste talde zabala- goen eskutik ere bai: berrikusleak batzuk, irakurle arruntaren ordezkariak besteak): Pentateukoa, liburu histori-koak, profetikoak, poetikoak, jakindu-riazkoak..., estilo aldetik ere nolabaite-ko batasuna lortu nahian eta literatur barne-koherentzia zaintzeko. Izan ere, honetan kontrola daiteke errazen zenbaterainoko zehaztasunez eginga dagoen itzulpen bat. Kontu egin, adibi- dez, I.B.an I.Z.eko ehundaka aipamen ditugula, zuzenekoak nahiz zeharka-koak. Baina kontrako arriskua ere kon- tuan hartzekoa da: alegia, itzulpenari gehiegizko homogeneitatea ematea, hizkera-mota eta estilo-ezberdintasun handiak baitaude Biblian testu ba- ztuetatik besteetara.

Emakumerik gabeko taldea izan da. Irakurleen artean bai, baziren, eta behin edo bestetan bilera nagusietara ere azaldu ziren. Baina presentzia tes- timoniala baino ez zen izan. Hala ere, “hizkera neutroa edo inklusiboa” erabiltzen ahalegindu gara: *gizaki* erabili da *gizon* hutsaren ordez, edo *gizon-emakume*, *seme-alaba*... beza- lako elkarketak, hizkera guztiz mas- kulinoa baztertuz. Horretan nahiko koherenteak izan gara. Beste hainbat kasutan euskarak erraztu egiten ditu gauzak: *apostolu*, *profeta*, *irakasle*... berez inklusiboak dira gure hizkuntzan, inguruko erdaretan ez bezala.

2.3. Elizen arteko Biblia

Puntu hau ere azpimarratzekoa da, Bibli Elkarte Batuen (B.E.B.) parte- hartzearengatik batez ere. Hitz batean esateko: B.E.B.en eragin eta diru- laguntzarik gabe, ezinezkoa izango zen proiektu hau burutzea. Gainera, esan behar da eskuzabaltasun handiz

jokatu dutela B.E.B.ek hasieratik bukaeraraino. Izan ere, gure herriaren tradizio eta egoera sozio-erlijiosoa kontuan harturik, ezinezkoa zen pro- testanteen eta katolikoen partehartzea parekoa izatea, lankideei zegokienean adibidez.

Hori esanda, egia da baita ere alderdi horrek ez duela eragin handirik izan itzulpenaren beraren muinari dagokionean, taldean ez baitzitzaigun sekula arazo konfesionalik sortu. Bestalde, lanaren garapen-prozesuan, ez genuen harreman organikorik izan Euskal Herriko elkarte protestanteekin; Eliza katolikoaren arduradunekin harreman gehiago izan genuen, infor- mazio mailan batik bat, baina ez genuen alde horretatik ere mandatu edo ordezkari ofizialik.

Baina B.E.B.ekin izandako elkarla- nak izan du zalantzarik gabe eragin erabakigarri besterik beste alderdi batetik ikusita ere: itzulpen-tankerari dagokio- nean, B.E.B.en baitan landuriko itzul- pen-teoria eta -irizpideak izan ditugu orientabide, gero esango dudana bezala.

Beste puntu bat ere aipatzekoa iruditzen zait, ondorio praktikoak ditue- lako: itzulpen honetan, hiru sailetan ematen dira Hebraierazko Biblia, Deuterokanonikoak eta Itun Berria (eta sail bakoitzean, jatorrizko testuetan duten ordenan ezartzen dira liburuak). Hori tradizio protestantearen jokabidea da, eta lehen aipaturiko eli-zen arteko itzulpenetarako akordioetan erabakia. Tradizio katolikoko itzulpenetara ohituari zailtasuntxoren bat edo beste sor diezaioke horrek hasieran, liburuak lokalizatzeko orduan; baina horrela hobeto erantzuten zaio leialta- sun historikoari: lehen aipaturiko hiru iturrietako testuak bereiz ematen baiti- ra eta iturri horietan duten ordenan.

2.4. Xede-hizkuntzari dagokionean, euskara batura egina

Euskaltzaindiaren erabaki eta gomendioak zintzo betetzen saiatu da itzultzaile-taldea. Horrekin batera, euskalkiekiko ardura ere bazen taldean (euskalkien arteko oreka zaindu nahian). Esango nuke ez dugula hizkuntz eredu jakin bat jarraitu. Uste dut hizkuntz eredu baina irakurle-eredua izan dugula gehiago gogoan: hau aski finkatuta genuen lanaren aurrerabide guztian. Ardura nagusia itzulpen ulertteraza egitekoa izan da: hizkuntz nahiz kultur mailan konpetentzia berezirik gabeko jendeak ulertzeko modukoa, entzute hutsez edo lehen kolpean irakurriz ulertzeko modukoa.

3. Zein itzulpen-mota?

3.1. Itzulpenaren desafioak

Bibliaren itzulpen-mota asko egin daitezke eta egiten dira. Eta mota bakoitzak ditu bere balio eta abantailak, oinarritzko aukera eta helburuen arabera. Ez dago bi itzulpen berdinek. E.A.B.-rena ere itzulpen mota bat da, oinarrian itzulpen-aukera jakin batzuk dituen. Funtsezko galdera hau litzateke: zer-nolako erlazioa dago itzulpenaren eta jatorrizko testuaren artean? Honetan datza itzulpenaren gakoa, itzulpena ez baita jatorrizko testua, haren erreproduktzioa baizik; erreproduktzio hori mimetikoagoa izan daiteke edo dinamikoagoa. Edonola ere, itzultzean jatorrizko testuaren forma eta molde berri bat sortzen da, haren balioak eta irakurle berriarentzat ulergarria eta jatorrizkoa eskurakoi bihurtuko diona. Itzultzailea bitartekaria da: testu beraren bi formaren artean aurkitzen da. Jano jainkoaren

antzerak, bi aurpegi ditu: bata jatorrizko testuari zuzendua, bestea testu-forma berriari.

Biblia, arrotz eta etxeko dugu aldi berean: batetik, eliz hizkuntzak (liturgiako testuen hizkuntzak, adibidez) Bibliako hizkuntzan, Itun Berrikoan bereziki, du oinarria eta iturria, eta alde horretatik gure arteko askorentzat hizkuntza hori ez da inola ere arrotz; bestetik, izugarria da Bibliako kultur munduaren eta gurearen arteko ezberdintasuna (Biblia, bestalde, milurteko luze batean zehar eraturiko literatura da, eta Bibliaren barruan ere ezberdintasun kultural handiak daude). Eta itzulpenarena arazo linguistikoa da, noski, baina baita arazo kulturala ere.

Adibide kaxkar bat jarriko dut. Bibliaren lehen orrialdean munduaren kreazioaz hitz egiten zaigu. Ez da kontakizuna, gorazarre tankerako testua baizik. Egitura finkoa du, esamolde errepikatuz eraturia, sei egunetan banaturia. Eta egun bakoitzaren buruan, esaldi bera dator. Hitzez hitz honela dio: «Izan zen arratsaldea eta izan zen goiza, egun bat (bigarren, hirugarren eguna...)». Liturgiako itzulpenak honela dio: «Eta arrats eta goiz, lehen eguna». Itzulpena bitxi samarra gertatzen zaigu. E.A.B.ak beste honetara eman du: «Honela, lehen eguna burutu zen». Hebertarrentzat eguna arratsaldean hasten zen eta hasten da, ez gauerdian, guretzat bezala. Hau datu kulturala da, adierazpen horretan isladatzen dena. Arrats-goiz bikoteak egun oso bat, hasi eta buka, adierazten du. Esanahia, beraz, itzulpenean jasotzen dena da: «Honela, lehen eguna (bigarren, hirugarren... eguna) burutu zen». Jatorrizkoaren forma aldatu egin da, esanahia argiago eta irakurleak zuzenean jasotzeko eran adierazteko.

Bibliaren itzulpengintza, ziurrenik, gainditu ezineko desafioen aurrean aurkitzen da, hain zuzen ere itzulpenak gainditu behar duen distantzia kulturala izugarri handia delako; eta era berean, Bibliaren eta gaurko irakurleria zabal baten artean, halako bizi-elkartasun bat dagoelako. Egia da distantzia laburtu daitekeela itzultzean, baina inola ere ez ezabatu. Horregatik, Bibliaren itzulpenak testuaz kanpoko hainbat osagarri hornituak eman ohi dira (sarrerak, oharak, hiztegiak, etab.). Hala ere, testuaren autonomia erreibindikatu behar dela uste dut, testua edonork zuzenean eta beste lagungarririk gabe irakurri ahal izateko modukoa izatea, alegia, berez izan behar bailuke ulergarri eta adierazgarri... Hori lortzea, ordea, ia ezinezkoa da. Eta ametsa litzateke Biblia bere osotasunean inolako prestakuntzarik gabe, hau da, testuaz kanpoko laguntzarik gabe, uler daitekeela pentsatzea. Eman dezagun, adibidez, Apokalipsiko, Bibliako azken liburuko, sinbologia. Itzulpenak errespetatu egin behar du hori, eta itzulpenaz kanpoko hainbat argibide gabe enigmaz betea gertatuko zaio Apokalipsi liburua irakurle arruntari (iluntasun horiek argitzea ez da itzulpenaren egitekoa). Eta sinbolismoa pasa, hizkera sinbolikoak ulertu gabe ere hitz egiteko (eta pentsarazteko) ahalmena baitu, sensibilitate pixka bat duenari behintzat. Baina Lebitarraena, Bibliako hirugarren liburua, hartuz gero, eta hango sakrifizio eta apaizei buruzko edo garbi edo kutsatu denari buruzko legedia, erabat bestelako mundu baten aurrean aurkituko gara, arrotz eta bitxi gertatzen zaiguna.

Testu biblikoa, neurri handi batean behintzat, komunikazio-ekintza bizia da. Idazle (edo hizlari) batek komunitate jakin bati (entzule nahiz irakurle)

zuzenduriko mezua. Itzulpenak jatorrizko testuaren bidez aspaldi batean gertaturiko komunikazio-ekintza berritu behar du, mezu berbera beste hizkuntza batean, ingurugiro diferentean bizi den beste komunitate bati, irakurleari, emanez. Bibliaren kasuan argi dago ez dela zerbait (testua) hizkuntzaz aldatzea bakarrik, norbaiti mezu bat komunikatzea ere bada. Antzinako eta oso kultura ezberdineko liburu bat itzultzean (liburu hori bizia bada behintzat, hau da, komunikazio-testuinguruan jaioa bada, eta bizia izaten jarraitu nahi badu), etengabe planteatzen den arazoa dugu hemen: testua ezarrita dagoen lehen komunikazio-egoeran, kultur giro berean murgilduak bizi dira bai hizlaria edo idazlea, bai hartzailea. Eta iturriaren eta hartzailearen artean dagoen kideasun horregatik, hainbat informazio inplizitu geratzen da jatorrizko komunikazio-ekintzan, ez baitu ulertze-arazorik sortzen. Baina orduko kideasuna distantzia gertatzen da gaurko irakurlearentzat, eta, orduan, inplizitu dagoena esplizitu bihurtu behar du itzulpenak (hori ez da testuan informazio berriak sartzea). Esplizitate lan hau etengabea izan da E.A.B.-ren itzulpenean.

3.2. Baliokideasun dinamikoa edo funtzionala

Biblia ez da normalean jende aditu, espezializatuarentzat, itzultzen, irakurle arruntarentzat egiten da. Eta irakurle arrunta ez dago itzulpen arazoez arduratuta. Bibliaren mezua bere hizkuntzan zuzenean edukitzea inporta zaio. Eskuetan duen itzulpena fidagarria dela jakitearekin aski du.

Eta horretarako eskuartearen zere-nolako itzulpena duen jakin behar du, hau da, zer erlazio duen euskaraz emandako Biblia honek jatorrizko

Bibliarekin, euskarazko testuak jatorrizko testuarekin. Nolabait esateko: itzulpenean profeta bat edo San Pauloren gutun bat irakurtzean, idazti horien lehenengo hartzaileek jaso zuten mezu bera jasoko duen ziurtasuna behar du. Hau da, itzulpena jatorrizkoaren baliokide leiala izatea. Eta itzultzaileengandik beraien jokabidea zein izan den jakiteko eskubidea du, zein itzulpen mota egin nahi izan duten, zein erlazio-modu eskaintzen zaion jatorrizko testuarekiko, eta zeintzuk izan diren irizpideak eta zeintzuk helburuak.

Itzulpen honetan Bibli Elkarte Baturek itzulpen munduan landu eta garatu dituzten itzulpen-printzipio eta -teknikak erabili dira.

Baliokidetasun funtzionalaz vs formalaz hitz egin ohi da, jatorrizkoaren formari estu lotzen zaiona (baliokidetasun formalak) eta formarekin libreago jokatzeko duena (baliokidetasun funtzionalak). Lege hau formula daiteke: esanahiari dagokionean itzulpenak jatorrizkoarekin bat etorri behar du; formari dagokionean ere, jatorrizkoarekiko lotura azaldu behar du. Bi testuak irakurtzeko gai dena (bi hizkuntz sistemak eta kultur munduak ezagutzen dituenak, alegia) bi testu-formek duten erlazioaz konturatu beharko luke eta biek funtzio bera betetzen dutela, testu bera dela hizkuntz eta kultur giro diferenteetan ematen dena.

Leialtasuna da itzulpenaren lege nagusia. Itzulpena zenbat eta leialagoa, orduan eta hobea. Baina leialtasunaren exijentzia bikoitza da: iturriarekin eta hartzailearekin (hizkuntza eta irakurlea). Leialtasunaren bi alderdiak dira garrantzizkoak. Hemen ere, itzultzailea bitartekari da bi errealitateen artean: alde batetik, jatorrizko testua

dago, hura zuzenean ezagutzen ez duten irakurleei ezagutarazi behar diena; bestetik, irakurlea, hartzaile berriak, beren hizkuntza, kultura, ulertzeko gaitasun bereziak dituztenak. Mezua da, zalantzarik gabe, garrantzizkoena, eta itzulpenaren helburua mezua ahalik eta leialen eta beteen ematea da; mezua gaur egungo hartzaileari modu ulerterraz eta esanguratsuan ematea. Formaren imitazio hutsak esanahiaren komunikazioa galerazten badu, jatorrizkoaren forma birmoldatu, egokitu, aldatu egin beharko da. Horretan xede-hizkuntzak eta hartzaile berriaren eskakizunek agintzen dute. Bibliaren itzulpenean imitazio formalak izan da jokabide usuena, eta hori, maiz, ez da benetan itzultzea, ez baitio esanahia modu ulergarri eta adierazgarrian azaltzen gaurko irakurleari.

Leialtasuna, beraz, ez da lehen aldera mugatzen; ez jatorrizko testuaren aldera bakarrik, baizik hartzailearen aldera ere bai: honek ulertzeko dituen ahalbideak eta erak kontuan hartu behar dira. Itzulpena egin daiteke, eta itzulpen ona, irakurlea ezertarako kontuan hartu gabe; zein helbururekin egin dagoen da kontua. Kasu horretan, ardura nagusia formari buruzkoa izango da; irakurleari lehenetasuna ematen zaionean, ordea, esanahia irakurleak erraz ulertzeko eran ematea da ardura nagusia. Ardura hori etengabe izan dugu gogoan E.A.B.-ren itzulpen-prozesuan. Eta zenbat eta urrutiago egon elkarrengandik bi hizkuntza eta bi mundu kulturalak, orduan eta beharrezkoagoa izango da baliokidetasun semantiko edo funtzionalaz baliatzea. Eta itzultzailearen konpromezua, eta baita arriskua ere, larriago bihurtzen da. Hitzek hitzeko itzulpena motz geratzen da, ez du behar adina itzultzen; itzulpen funtzio-

nalaren arriskua, berriz, kontrakoa izan daiteke: behar baino gehiago itzuli, gain-itzulpena esan ohi dena. Gehiegizko interpretazioa edo parafraisi moduko itzulpenak egitea. Gehiegikerietan ez erortzeko erne egon behar da; baina testua ez bazaio irakurleari ulerterraz bihurtzen, zer zentzu du itzulpenak? Gainera, hitzez hitzeko itzulpenak, Bibliaren kasuan behintzat, etengabe sortzen dizkio gaurko irakurleari ez bakarrik ulertze-zaitasunak, gaizki-ulertuak ere bai.

4. Zenbait itzulpen arazo

4.1. Hitzen semantika

Kasu bat aipatuko dut, Mk 14, 38tik jaso. Honela dio hitzez hitz: «izpiritua gartsua baita; haragia, ordea, ahula». Zer ulertzen da? Haragi hitzak gaur euskaraz ez du Biblian, bai I.Z.ean bai I.B.an, duen aniztasun semantikoa. Izpiritu-haragi kontrajarriak ageri zaizkigu, eta esanahia –hitzen semantika– esaldi barruko erlazioetan erabakitzen da, hain zuzen. Baina testuingurua ez da hurbilekoa bakarrik, testuinguru osotik –Biblia osotik gure kasuan– hitzak zentzuz zamatua gertatzen baitira, karga semantiko handiagoa hartzen dute. Har dezagun, adibidez, Jr 17, 5. Hau dio hitzez hitz: «Madarikatua gizakiaz fidatzen den eta haragian bere indarra (besoa) jartzen duen gizona» (bigarren zatia, hebraieraz, honela da: *wexam basar zero`ô*: Azken hitza, *zero`a*, berez 'besoa' da, indarraren irudi bihurtzen dena, nahiko irudi lexikalizatua). E.A.B.-ren itzulpenak honela dio: «Madarikatua konfidantza gizakiagan duena, giza indar hutsean oinarritzen dena». Bai hebraierazko *basar* 'haragi' bai grekozko *sarx* 'haragi' hitzek, zentzu normalak dituzte, zuzenekoak: gizakiaren osagai fisikoa adierazten dute (beste zenbait

osagairekin batera maiz: *Haragia-odola*, baita *hezur* hitzarekin parekatua ere: gure *hezur-mamizko* bezala: ik. Mt 16, 18). Baina oso maiz *haragi* hitzak konnotazio berezia du: gizakiaren alderdi ahula, hilkorra, edo, hobeto esanda, gizakia, bere osotasunean hartuta, baina ahul eta galkor den aldetik ikusita, izpiritu-ri kontrajartzen zaionean (osagai bizigarri, animatzailea...). Hori da Jeremiasen testuan funtzionatzen duen zentzua: *giza indar huts*. San Paulorenean *sarx*-en erabilera hau normala da. Maila antropologikoan, *haragi*-k gizakia bere osotasunean adierazten du, ahula eta galkorra den aldetik. Ik. E.A.B.-n Erm 7, 18ko oharra. Beraz, Mk 14, 38 honela itzuli da E.A.B.-n: «gogoz gartsu izan arren, ahula baita gizakia».

Beste adiera bat, hebraieraz aski erabilia, aipatuko dut: *kol basar*, euskaraz *haragi oro*, 'gizaki guztiak', 'gizadia', adierazteko. Eta beste bat, hitzen polisemiaz kontura gaitezen (itzultzeko garrantzi handiko kontua baita): *basar* 'familia, herri edo arraza bereko' esateko: Is 58, 7: *mibesarka lo tit`alem* 'zeure haragitik ez ezkutatzea' honela itzulia: «zeure gizakideari laguntzarik ez ukatzea». Baina azken kasu honetan ikus daitekeenez, nabarmena da itzulpenaren galera, irudizko hizkera, hizkera konkretua, galdu egiten baita. I.Z.eko hizkera guztiz konkretua da, abstrakziorik gabea.

Tankera honetako kasu gehienetan hitzez hitzeko itzulpenak oharrean ematen dira, eta horrelakoak dira hain zuzen hainbat eta hainbat ohar (itzulpen literalen jokabidea alderantzizkoa izaten da: testuan hitzez hitzekoa eman eta oharrean esanahia argitu).

Esamolde berezien edo idiomatismoen kasua ezagunegia da eta ez dut

hemen aipatuko, baina maiz gertatzen den kontua da. *Seme* osagaiarekin moldatuak adibidez: biztueraren seme 'biztueran parte izango dutenak' (Lk 20, 36) adierazteko edo *ezkon-gelako seme* 'ezteietara deituak, gonbidatuak' (Mk 2, 19) adierazteko.

4.2. *Hizkera figuratiboa*

Beste puntu bat, Bibliaren itzulpe-nean oso garrantzizkoa dena, aipatuko dut, lehen ere aipatua. Bibliak erabiltzen duen hizkera irudiz josia dago. Isaiasen, agian Bibliako poetarik handienaren, azken kapituluko zati bat irakurriko dugu horren adibide (eta horrela hebraierazko poesiaren zenbait literatur baliabidez ere jabetu zintezkete): Is 66, 7-14. Hebertarren poesian doinuak garrantzi handia du; aliterazioak, asonantziak, hitz-jokoak... etengabeak dira. Horiek itzulpenean isladatzea oso zaila da. Baina ez da hori arazorik larriena; arriskurik handiena, itzulpen honena eta gainerakoena, beste hau da: hizkera figuratiboa murriztea, hizkerari bere bizitasuna eta konkretutasuna kentzea, eta horrekin batera, espresibitatea, testuari bere indar poetikoa kentzea, irudia ez baita ideiaren jazkera edo apaingarri hutsa, esanahiaren parte baizik. Hizkera-modu hori da itzultzen zailena (eta arrazoi horrengatik neurri handi batean esan izan du batek baino gehiagok, itzulpena ezinezkoa dela edo nola edo hala traizionatu egiten dela jatorrizkoa, poesiaz ari garenean batik bat). Zailtasun horri aurre egiteko modu bat hitzez hitzeko itzulpenak oharretan ematea izaten da, eta hala jokatu da maiz E.A.B.-n (baina hori konponbide kaxkarra da). Konpensazio-legea ere aipatu izan da, baina hori praktikan zaila da eta arbitrario samarra ere bai.

Euskaraz aski ondo moldatzen den Gales-ko lagun batek ohar hau egin zidan duela gutxi: Kohelet liburuaren azken kapituluan (Koh 12, 1-8) egin genuen aukera ez zitzaion ongi iruditu. Txatal horietan zahartzaroaren deskribapen aparta eta bitxia egiten da: irudi bidez zahartzaroaren ahultasuna eta ezinak agertzen dira. Itzulpenean, ordezko ez-figuratiboak jarri dira testuan eta hitzez hitzekoa oharrean eman da. Nire laguna ez zegoen jokabide horrekin ados, eta ez diot nik arrazoa ukatuko. Egia esan, ez daukazu inoiz asmatu duzun ziurtasun betea.

4.3. *Lotura narratibo eta logikoak*

Beste eginbehar bat, etengabea, lotura narratiboak edo logikoak egokitzea (askotan argitzea) da, esaldi luze eta konplexuen birmoldatzea eta berregituratzea, etab. Ezinezkoa da hainbat testu itzultzea, beren azaleko egitura linguistikoen birmoldaketa egin gabe. Honek ez du aparteko arazorik sortzen testu narratiboekin. Bibliako narratiba aski lineala da, funtsezko elementuetan kontzentratua: pertsonaiak, sekuentzializazioa, istorioa bera, ongi mugatuak egoten dira. Baina diskurtso logikoa denean, bestela da. San Pauloren gutunetan, adibidez. Periodo luze eta konplexuak ditugu hor. Eta kasu horietan analisi linguistikoaren bitartekaritza ezinbestekoa da: testua zatikatu, oinarrizko egiturak, edo azpiegiturak, agerian jarri, parrafo konplexu baten azpian zein osagai konkretu dagoen eta egiazko erlazio semantikoak zeintzuk diren argitu, oinarrizko osagai horiek testu itzulian euskarari eta testuaren komunikazio-helburuari dagokion eran berriro josteko. Hitz batean, liburu edo pasarte baten egituraz ongi jabetu, eta horreta-

rako testua bere osotasunean eduki behar da begi aurrean. Baina hemen ezin dut horren adibiderik jarri, gehiegi luzatuko nintzateke eta.

1995eko abenduan edo, beste obra bat aterako da, teknikoagoa: Itun Berri hirueleduna, grekozko testu kritikoa, Vulgata eta E.A.B.-ko euskal testua zutabe paraleloetan jarrita emango dituen. Hor argi ikusi ahal izango da esan berri dudaren eragina: alegia, itzulpenean egindako birmoldatze lana eta baita ulergarritasunari begira egin den esplizitazio lana ere.

5. Norentzat egina?

Oro har, hau litzateke ereduazko irakurlea: euskaldun alfabetatua, erdi mailako kulturaduna, Bibliaren ezagutza berezirik ez duena, eta Bibliaz baliatzeko bide bakarra itzulpen hau izango duena.

Ulergarritasunari eman zaio garrantzirik handiena, baina zentzugabea litzateke, jakina, ulergarritasuna leialtasunari kontrajartzea, kontua jatorrizkoak dioena ematea baita, modu ulerterrazean. Testu ulerterraza eta irakurteraza egin nahi izan da. Hori zen itzultzaileen ahalegin nagusietako bat. Euskaldun alfabetatuak eta erdimailako kultura duenak erraz ulertzeko moduko hizkera erabili nahi izan da, hizkera herrikoa, euskaraz irakurtzen ohitura pixka bat duenak normaltasunez ulertzeko moduko. Horretarako esaldi luzeak eta forma konplikatuak –aditz forma zailak, adibidez– baztertu dira, ahalik eta hiztegi ezagunena eta hedatuena erabili, idatzia hizkera mintzatuari ahalik eta

gehien hurbildu (batez ere gehien erabiliak diren Bibliako atalenzat, oso gutxi erabiliak direnentzat zailtasun maila handixeagoa onartuz). Gehiegizko garbizaletasuna ere alde batera utzi nahi izan da (adibidez, *dibortzio* edo adulterio bezalako hitzak sartuz –*ezkontza-hauste*, *ezkontza-nahaste* erabili ohi da euskal itzulpen tradizioan– edo *kontsolatu*, tradizioz *poztu* erabili ohi den lekuan).

Hasieran prestatu zen arautegiak beste hau ere bazioen: «Itzulpenaren hizkerak ulertzeko moduko izan behar du bai fededunentzat bai fedega-beentzat». Eta hori zertxobait zehaztuz, beste arau hau: «Itzulpenak eliz jendearen hizketa-modu itxia ebitatuko du».

Zentzu honetan, itzulpena ez dago bereziki eliz munduan pentsatuz egina, eliz mundutik aparte dauden pertsona eta gizarte-zati handiarengana ere iritsi nahi du. Askotan egin izan diogu galdera hau geure buruari: zer esan diezaioke hitz edo esamolde honek eliz girotik kanpo bizi denari? Eta orduan, ardura hori gogoan izanik, askotan ohi-turaren lozorroa astindu egin behar da, ohizko itzulpenei itsu-itsuan jarraitzeari uko eginez. Ulergarritasuna helburu nagusizat jotzen denean, itzulpen-eskakizuna handiagoa da. Edozein itzulpenetan egin behar izaten da interpretazio-lanik; baina itzulpen funtzionalaren irizpideak erabiltzean, itzultzailea jatorrizkoa sakonago ulertzera behartua dago, hain zuzen ere, forma estereotipatuak haustera behartzen duelako. Kreatibitateari toki handiagoa egin behar zaio. Testuaren hartzailearen mesedetan.

Bibliografia

- Altuna, P., (1994): "Raimundo Olabideren bizitza eta lanak (1869-1942)", *Euskera*, 39/2, 451-467.
- Amundarain, D., (1988): "Elizen arteko Bibliaren itzulpen taldea", *Senez*, IV, 97-109.
- Askoren artean, (1994): *Elizen Arteko Biblia*, Lazkao-Donostia.
- Intxausti, J., (1994): "Euskarazko biblien historiaz", *Euskera*, 39/1, 299-314.
- Olabide, R., (1958): *Itun Zar eta Berria*, Bilbo.
- Zabaleta, J. M., (1988): "Biblia itzulpena Euskal Herrian. Historia apur bat", *Senez*, IV, 51-92; 165-170; 171-178.